Zarauzko Udala
Zk./ Nº 2025/11
Data / Fecha 2026/01/19
Akta / Acta

2025eko ABENDUAREN 4an UDALBATZARRAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 11 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko abenduaren 4an, arratsaldeko zazpiretan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ez ohiko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena and. Irune Urbieta Alberdi and. Jesus Arana Gomez jn. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Iker Basurko De Miguel jn. Gervasio Gabirondo Fernandez jn. Estibaliz Agirre Uranga and. Naiara Mendivil Ayerza and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Ainara Landa Argote and. Ainhize Larramendi Larrarte and. Mikel Agirre Etxaniz jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn Eider Gurrutxaga Larrañaga and. Ander Lucas Aranceta jn. Garazi Olaizola Irureta and. Gloria Vazquez Herranz and. Inaxio Illarramendi Lizarreta jn.
Idazkaria	Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2026. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONESPENA

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

Espedientea: 2025D2000001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251204&punto=1

Idazkariak akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	9	9 EH Bildu
Abstentzioak:	-	

Ondorioz, Udalbatzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

2026. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRAren proiektuaren proposamena aurkeztu da. Udalburuak prestatu du, eta honako hauek osatzen dute: Udal aurrekontuak berak, ZARAUTZ-LUR SA udal sozietatearen aurrekontuak eta aurrekontu bateratuak.

Hori guztia dela eta, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Antolakuntzako Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren, Udaleko Osoko Bilkurak gehiengoz honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea Zarauzko Udalaren 2026. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRAri eta AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAri. Aurrekontua honako hauek osatzen dute: udal aurrekontuak berak, ZARAUTZ-LUR SA udal sozietatearen aurrekontuak eta aurrekontu bateratuak, ondoren kapituluka zehaztuta agertzen diren diru-sarreren eta gastuen laburpenaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-tramitea iragarkien bidez jakinaraziko da udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko.

2026. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

1) UDALA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	10.273.439,00
2	Zeharkako zergak	900.000,00
3	Tasak eta bestelako zergak	5.914.090,00
4	Transferentzia arruntak	24.193.534,89

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

5	Ondare sarrerak	303.410,00
6	Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	20.000,00
7	Kapital transferentziak	707.731,00
8	Finantza aktiboak	2.406.363,64
9	Finantza pasiboak	7.751.384,61
	Guztira	**52.469.953,14**

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	15.223.831,64
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	21.865.051,77
3	Finantza gastuak	50.000,00
4	Transferentzia arruntak	3.938.335,70
5	Kreditu globalak eta beste ustekabeak	0,00
6	Inbertsio errealak	11.301.681,95
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Finantza aktiboak	20.000,00
9	Finantza pasiboak	71.052,08
	Guztira	**52.469.953,14**

2) ZARAUTZ – LUR

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
3	Tasak eta bestelako zergak	50.076,68
4	Transferentzia arruntak	254.083,32
	Guztira	**304.160,00**

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	146.000,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	158.160,00
	Guztira	**304.160,00**

3) UDAL AURREKONTU BATERATUA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	10.273.439,00
2	Zeharkako zergak	900.000,00
3	Tasak eta bestelako zergak	5.964.166,68
4	Transferentzia arruntak	24.193.534,89
5	Ondare sarrerak	303.410,00

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

6	Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	20.000,00
7	Kapital transferentziak	707.731,00
8	Finantza aktiboak	2.406.363,64
9	Finantza pasiboak	7.751.384,61
	Guztira	**52.520.029,82**

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	15.369.831,64
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	22.023.211,77
3	Finantza gastuak	50.000,00
4	Transferentzia arruntak	3.684.252,38
5	Kreditu globalak eta beste ustekabeak	0,00
6	Inbertsio errealak	11.301.681,95
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Finantza aktiboak	20.000,00
9	Finantza pasiboak	71.052,08
	Guztira	**52.520.029,82**

2.- 2026. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONESPENA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN ONESPENA

Espedientea: 2025P3020005

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251204&punto=2

Giza Baliabideetako arduradunaren 2025eko azaroaren 21eko txostenean azaldutakoaren arabera, 2026ko plantilla organikoa onartu eta giza baliabideak kudeatzeko urte anitzeko plana eta 2025eko lanpostu zerrenda aldatu beharra dago. Aldaketa horiek 2025eko azaroaren 21eko ez-ohiko negoziazio-mahaian negoziatu dira.

Horiek horrela, ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onespena ematea Zarauzko Udalaren Giza Baliabideak kudeatzeko urte anitzeko planaren I. aldaketari.

Bigarrena.- Onespena ematea Zarauzko Udalaren 2026rako plantilla organikoari.

Hirugarrena.- Onespena ematea Zarauzko Udalaren 2025erako lanpostuen zerrendaren aldaketari eta berau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, xehetasun hauen arabera:

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

1. 1.1.168 Programa Berezietako gizarte langile lanpostuko dotazio bat gehitzea.

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14) *Ded eta disp barne*	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK *	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.168	Programa berezietako gizarte langilea	12	E	L	A2	20	19.381,04	21	432		3	2001/12/26 2025/12/04	1	1

1. 1.1.167 2. Mailako ofizial igeltsero lanpostuko dotazio bat gehitzea.

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14) Ded eta disp barne	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK *	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.167	2.mailako ofizial igeltseroa	1-45	E	L	C2/AP	17	16.373,00	22	200	B gidabaimena	1	2001/12/26 2025/12/04	1	1

3. Administrazio Orokorreko Teknikari plazei dagozkien lanpostuei titulazioa aldatzea:

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14) Ded eta disp barne	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK *	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.208	Zerbitzu juridikoetako AOT (Idazkaritza)	1	E	L	A1	23	24.100,72	11	575		4	2025/06/25	1	1
1.1.4	Zerbitzu juridikoetako AOT (Kontratazioa)	1	E	L	A1	23	24.100,72	11	575		4	2007/02/14	1	1
1.1.180	Zerbitzu juridikoetako AOT (ondarea, ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena)	1	E	L	A1	23	24.100,72	11	575		4	2008/01/25	1	1
1.1.198	Zerbitzu juridikoetako AOT (Modernizazioa eta kalitatea, administrazio elektronikoa)	1	E	L	A1	23	24.100,72	11	575		4	2020/01/21	1	1
1.1.202	Udaltzaingoko eta Mugikortasuneko AOT	1	E	L	A1	23	24.100,72	11	575		4	2022/09/22	1	1
1.1.54	Hirigintza eta Ingurumeneko arduraduna	1	B	L(*)	A1	25	39.620,42	11	575		4	1990/08/31	1	%15
1.1.2	Giza Baliabideetako arduraduna	1	E	L	A1	25	35.077,33	11	575		4	2003/01/30	1	% 10
1.1.209	Giza Baliabideetako AOT	1	E	L	A1	23	24.100,72	11	575		4	2025/06/25	1	1

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

Laugarrena.- Plantilla organikoa jendaurrean jartzea hamabost egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Epe hori igarotakoan, alegaziorik aurkeztu ez bada, plantilla organikoaren hasierako onespenaren erabakia behin betikotzat joko da.

PLANTILLA ORGANIKOA 2026

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO PLAZAK

GAIKUNTZA NAZIONALEKO ESKALA

KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
IDAZKARITZAKO AZPIESKALA						
1.1.1	IDAZKARI NAGUSIA	1	A1	1	0	
KONTU-HARTZAILETZA / DIRUZAINTZA AZPIESKALA						
1.1.2	KONTU-HARTZAILEA	1	A1	0	1	
1.1.3	DIRUZAINA	1	A1	0	1	

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA

KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
TEKNIKARIEN AZPIESKALA						
1.1.4	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA	8	A1	3	5	
ADMINISTRARIEN AZPIESKALA						
1.1.5	ADMINISTRARIA	47	C1	28	19	
MENPEKOEN AZPIESKALA						
1.1.8	TELEFONISTA INFORMATZAILEA	1	C2	1	0	Enplegu plana (Haurtzaindegia)

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA

KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
TEKNIKARIEN AZPIESKALA						
KLASEA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK						
1.1.9	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (INGENIARIA/ARKITEKTOA)	2	A1	1	1	
1.1.11	FILOLOGOA	1	A1	1	0	
1.1.62	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (BIBLIOTEKONOMIA)	1	A1	1	0	
1.1.63	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (KIROLETAKO ARDURADUNA)	1	A1	1	0	
KLASEA: ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAK						
1.1.12	ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	24	A2	15	9	
1.1.13	GIZARTE LANGILEA	10	A2	7	3	
KLASEA: TEKNIKARI LAGUNTZAILEAK						
1.1.14	DELINEATZAILEA	2	C1	2	0	
ZERBITZU BEREZIETAKO AZPIESKALA						
KLASEA: ZEREGIN BEREZIAK						
1.1.18	EKONOMIAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	1	0	
1.1.19	EUSKALTEGIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	13	A2	13	0	
1.1.20	HAURTZAINDEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	2	A2	2	0	Enplegu plana (Haurtzaindegia)
1.1.23	ITZULTZAILEA	2	C1	2	0	
1.1.24	INFORMATIKAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.26	ERAKUSKETETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.29	OROKIETAKO ETXEZAINA	2	E	0	2	
1.1.44	ERRENTA ETA ORDAINARAZPENETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	0	1	
1.1.45	KULTURAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	A2	0	1	
1.1.46	LIBURUTEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	4	C1	2	2	
1.1.47	INFORMATIKAKO LAGUNTZAILEA	1	C2	1	0	
1.1.56	KIROLETAKO TEKNIKARI LAGUNTZ.	1	C1	0	1	

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

1.1.57	MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.64	TURISMOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	
KLASEA: UDALTZAINGOA						
1.1.66	KOMISARIORDEA	1	A2	0	1	
1.1.15	OFIZIALORDEA	1	C1	0	1	
1.1.16	LEHEN-MAILAKO UDALTZAINA	6	C1	4	2	
1.1.17	UDALTZAINA	33	C1	29	4	
1.1.65	OFIZIALA	1	C1	1	0	
KLASEA: OFIZIOETAKO LANGILEAK						
1.1.30	PROIEKTUETAKO ARDURADUN KOORDINATZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.34	ERAIKUNTZEN OFIZIAL ZAINTZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.49	BRIGADAKO ARDURADUNA	1	C1	1	0	
1.1.50	OFIZIAL IGELTSEROA	4	C1	3	1	
1.1.51	OFIZIAL ARGIKETARIA	2	C1	1	1	
1.1.52	OFIZIAL ITURGINA	2	C1	2	0	
1.1.53	OFIZIAL LOREZAINA	1	C1	0	1	
1.1.54	BIGARREN MAILAKO OFIZIALA	6	C2	5	1	
1.1.58	MUNTATZE-LANETAKO KOORDINATZAILEA	1	C2	0	1	
1.1.59	MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA	4	C2	3	1	
1.1.61	ZEREGIN ANITZEKO OFIZIALA	2	C1	1	1	

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO PLAZAK						
KODEA	IZENA	ZENBAT	TALDEA	AKT	HUTSAK	OHARRAK
1.2.2	ALKATEAREN IDAZKARIA	1	C1	1	0	
1.2.5	TALDE POLITIKOKO IDAZKARIA	1	C1	1	0	% 75
1.2.6	KOMUNIKAZIO ETA PROTOKOLO ARDURADUNA	1	A1	1	0	

3.- ZARAUTZ-LUR UDAL SOZIETATEAREN 2026KO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONESPENA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONESPENA

Espedientea: 2025II720010

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251204&punto=3

ZARAUTZ-LUR SA hirigintzako udal sozietateak 2026. ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aurkeztu ditu, administrazio-kontseiluak 2025eko azaroaren 26an egindako bileran onartu zituenak, orain Udalbatzarrak onar ditzan.

Hori ikusita, eta Antolakuntzako informazio batzordeak aurrez aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehena.- ZARAUTZ-LUR SA hirigintzako udal sozietatearen 2026. ekitaldirako plantilla organikoari hasierako onespena ematea.

Bigarrena.- ZARAUTZ-LUR SA hirigintzako udal sozietatearen 2026. ekitaldirako lanpostuen zerrendari onespena ematea.

Hirugarrena.- Plantilla organikoa jendaurrean jartzea aurrekontuekin batera, eta legez bete beharreko izapideak betetzea.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

PLANTILLA ORGANIKOA 2026: ZARAUTZ-LUR SA HIRIGINTZAKO UDAL SOZIETATEA (LAN-LEGEPEKOAK)

Lanpostu finkoak						
KODEA	IZENA	ZENBAT	TALDEA	AkT.	HUTSAK	OHARRAK
1.72	ARDURADUN JURIKOA	1	A1	0	1	
1.74	ADMINISTRARIA (%50) (1*)	1	C1	0	1	

**(1) Jardunaldia %100 "Next Generation" hitzarmenak irauten duen bitartean.*

2026KO LANPOSTUEN ZERRENDA / "ZARAUTZ-LUR SAU" UDAL SOZIETATEA

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.11.2	Arduradun juridikoa	1	B	I	A1	24	29.201,07		570		4	2009/02/27	2	2
1.11.3	Administraria (%50) (1*)	1	E	L	C1	19	18.304,01		300		3	2014/12/17	2 (50%)	1

**(1) Jardunaldia %100 "Next Generation" hitzarmenak irauten duen bitartean.*

4.- ASTIKO KIROL-EKIPAMENDUA HANDITZEKO SAKONETA BASERRIKO LURRAK ESKURATZEKO HIRIGINTZA-HITZARMENAREN PROPOSAMENA. JENDAURREAN JARTZEA

Espedientea: 2025H9890002

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	9	9 EH Bildu
Abstentzioak:	–	

Ondorioz, Udalbatzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

Goicoechea Rezabal anai-arrebek, Udalarekin negoziatu ondoren, hirigintza-hitzarmen baten proposamena aurkeztu dute.

Hitzarmenak bi gai jorratzen ditu: batetik, lur horietan kirol-ekipamendua handitu ahal izateko eta baserri-eraikinaren orubearen sailkapena aldatzeko onartu behar den hirigintza-antolamendua; eta, bestetik, hirigintza-antolamendu berria onartu ondoren, zer baldintza bete behar diren Udalak lursail horiek erosteko.

Aurkeztutako testuari aldaketa formalak egin zaizkio.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak txostena egin ondoren, eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Udalbatzarrak gehiengoz honako hau **ERABAKI DU:**

Lehena.- Jendaurrean jartzea Zarauzko Udalaren eta Goicoechea Rezabal anai-arreben artean sinatu beharreko hirigintza-hitzarmenaren proposamena.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

Proposamenaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Jendaurreko epea 20 egunekoa izango da, argitarapen horretatik kontatuta.

Bigarrena.- Barne-kontrolaren 32/2018 Foru Dekretuko 13.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmena behin betiko onartzeko baldintza bat bete behar da: hitzarmenetik eratorritako betebeharrak finantzatzeko behar adina kreditu egotea.

Hirugarrena.- Adieraztea hirigintza-hitzarmena onartu ondoren honako baldintza hauek bete beharko direla hura sinatzeko:

- Sinatzaileak hitzarmenaren xede diren finken erregistroko titular izatea.
- Udalak, aldi berean, bigarren klausulan jasotako prima ordaintzea.
- HAPOren Aldaketa puntuala egiteko erabakia hartzea.

SAKONETA BASERRIKO LURRAK EROSTEKO HIRIGINTZA-HITZARMEN PROPOSAMENA (ASTIKO KIROL-EKIPAMENDUA HANDITZEKO)

Zarautzen, 2026ko ……aren ……..an

BILDU DIRA

Alde batetik, XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ jauna, Zarauzko Udaleko alkatea, erakunde hori ordezkatuz (hitzarmen honen 1 eranskinean jasota dago izaera eta ordezkaritza hori frogatzen duen dokumentazioa).

Bestetik:

* ……. jauna, adinez nagusia, Zarauzko bizilaguna (helbidea: ……; NAN: ……)
* …….. jauna, adinez nagusia, Zarauzko bizilaguna (helbidea: ……..; NAN: ……..)
* …….. jauna, adinez nagusia, Zarauzko bizilaguna (helbidea: ……..; NAN: …….).

Horiek guztiak hitzarmen honen eraginpeko lurren eta eraikinen jabeak dira, eta beren izenean eta eskubidean jardungo dute. Hitzarmen honen 2 eranskinean jabetza hori egiaztatzen duen dokumentazioa dago (zehazki, 361, 751, 762, 2041, 1304, 2528, 577, 2221, 2261 eta 2262 erregistro-finkei buruzko Jabetza Erregistroko ziurtagirien kopiak).

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, helburu horrekin, aurrekari hauek azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

Lehena.- 2008ko otsailaren 13ko erabakiaren bidez, Zarauzko Udalak behin betiko onespena eman zion udalerrian indarrean dagoen Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari.

Plan horrek, besteak beste, eremu hau mugatu zuen: "18. Astiko Kirolgunea" (azalera: 55.134 m^2), eta horren hirigintza-araubidea zehaztu, honako aurreikuspen hauen arabera:

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

* Lurren sailkapena eta kategorizazioa: Hiri Lurzoru Finkatua.

* Nagusiki kirol-ekipamenduko erabileretara bideratzen da, udalerriko sistema orokorren sarean integratuta.

  Aurreko erabilerak espazio libreekin eta hiriko berdeguneekin osatzen dira, bai eta bide-sareekin ere, eremura sartzekoa barne.

* Honako hau ere zehazten da: *Kirol-instalazioak zabaldu edo, hala badagokio, berritzeko lurzoru berriak gehitu beharko balira, premia hori, ekipamendu hau garatzeko Plan Berezi baten bitartez justifikatu eta erregulatu beharko da. Plan horrek gaur egungo kirol-eremuaren inguruan urbanizaezin gisa sailkatutako lurrak har ditzake*.

Bigarrena.- ASTIn aspaldi ikusi zen beharrezkoa zela egungo kirol-instalazioak handitzea, herrian dauden eskaerei erantzuteko.

Horretarako, Zarauzko Udalak aurreikusita dauka prozesu bat sustatzea indarrean dagoen Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldaketa puntuala formulatu, egin eta tramitatzeko. Laugarren aurrekarian aipatutako helburu eta irizpide orokorretara egokitzea aurreikusten da, besteak beste.

Kirol-instalazio horiek hirigintzaren aldetik egiturazkoak direnez, justifikatuta dago HAPOn aldaketa hori egitea.

Hirugarrena.- Hitzarmen honen sinatzaileak (……. jauna, …….. jauna eta …….. jauna) ASTIko egungo kirol-instalazioen inguruan dauden lursail eta eraikinen jabeak dira (hitzarmen honen 3 eranskineko 1 planoan identifikatu eta mugatutakoak). Lursail horiek, guztira, 27.654 m²-ko azalera dute. Nolanahi ere, honako bi egoera hauek bereiztea justifikatuta dago, bai lursailaren ezaugarri eta baldintzatzaileengatik, bai laugarren aurrekarian HAPOren aldaketa puntualari buruz azaldutako irizpide eta helburuetara egokitu beharragatik:

1.- Sakoneta baserriaren hurbileko lurrak eta inguru horretan dauden gainerako eraikinak, haiei zuzenean lotutakoak, erabilerari eta gozamenari dagokienez. Azalera: 3.000 m^2. Horren kokapena eta mugak hitzarmen honen 3 eranskineko 1 planoan adierazitakoak dira (planoko 2 partzela); dena den, partzela berregokitu daiteke, laugarren aurrekariko 2. atalean azaldutakoaren arabera.

2.- Gainerako lurrak. Azalera: 24.654 m^2. Horren kokapena eta mugak hitzarmen honi erantsitako 3 eranskineko 1 planoan adierazitakoak dira (planoko 1 partzela).

3 eranskineko 2 planoan mugatuta azaltzen dira bai aurreko lurrak, bai ASTIko egungo kirol-instalazioekin lotutakoak, bai azalera handitzeko egokiak izan daitezkeen beste lur batzuk ere.

Laugarrena.- Bigarren aurrekarian adierazitakoaren arabera, Zarauzko Udalak aldaketa puntual bat egitea aurreikusi du indarrean dagoen Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean, ASTIko egungo kirol-instalazioak handitzeko. Zehazki, honako helburu eta irizpide orokor hauetara egokitzea aurreikusten da, besteak beste:

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

1.- ASTIko egungo kirol-instalazioak handitzeko beharrezkoak diren hirigintza-antolamenduko aurreikuspenak zehaztea, baita gai hauekin lotutakoak ere:

A.- Helburu horretarako egokiak diren lursailak identifikatu eta mugatuko dira, hauen arabera: egungo instalazioekin duten jarraipena edo lotura, orografia, kirol-helburuetarako duten egokitasuna eta abar.

Horri dagokionez, adierazi behar da bai hirugarren aurrekariko 2. atalean aipatutako lursailak, bai HAPOren aldaketan bertan zehaztuko diren gainerakoak egokiak direla horretarako. Nolanahi ere, HAPOren aldaketan zehaztuko da zein diren kirol-helburu horietara bideratutako lursailak eta horien behin betiko mugak.

B.- Ezarri beharreko kirol-instalazio motak arautzeko jarraibideak zehaztea.

2.- Eraginpeko inguruan egonik HAPOren aldaketa horren eremuan sartzea justifikatuta duten beste lursail eta eraikin batzuen hirigintza-araubidea zehaztea.

Horien artean sartzen dira hirugarren aurrekariko 1. atalean aipatutako lursailak eta eraikinak. Haren mugak, hasiera batean, hitzarmen honetako 3 eranskineko 1 planoan adierazitakoak dira. Dena den, HAPOren aldaketa horrek mugaketa hori berregokitu ahal izango du, bi arrazoiengatik: aldaketa hori egitea justifikatzen duten helburuak lortzeko; eta aldaketak eragindako eremu osoaren hirigintza-antolamenduko aurreikuspenak behar bezala zehazteko. Berregokitze horiek eragina izan dezakete Aldaketak eragindako inguruan dauden beste lursail batzuetan; kasu horretan, eta hala badagokio, ustez egokiak diren neurriak zehaztuko dira, konpentsazio edo truke gisa.

Hirigintza-araubidea, besteak beste, honako aurreikuspen hauetara egokituko da:

A.- Lursailak bizitegi-partzela gisa kalifikatzea (5 erabilera 2 mota modalitatea edo asimilagarria den beste bat, gehienez zortzi etxebizitzako eraikin batekin edo eraikin-multzo batekin bateragarria dena).

B.- Sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna finkatzea: 800 m^2(t). Hori guztia etxebizitza-erabilerara zuzentzen da.

Eraikigarritasun hori sestra azpirako aurreikusitakoarekin osatzen da (HAPOren Aldaketak zehazten duena).

C.- Baimendutako eraikinen eraikuntza-parametroak zehaztea (lerrokadurak, sestrak, solairu kopurua, eraikinaren altuera, etab.), aukera hauetako edozein posible izan dadin:

* Egungo eraikinak mantentzea.
* Egungo eraikinak eraistea, eta HAPOren aldaketan zehazten diren ordezko eraikuntza-parametroetara egokitutako beste batzuekin ordeztea.
* Eraikin berrien eraikuntza partziala, egungoen zati batzuk mantenduta, baimendutako gehienezko eraikigarritasunaren barruan.

D.- Eragindako lursailen partzelazio-araubidea zehaztea, horiekin hirigintza-partzela autonomo eta bereizi bat edo gehiago eratu ahal izateko.

E.- Lursailak hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatzea eta kategorizatzea.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

3.- 1. eta 2. ataletan aipatutako aurreikuspenak gauzatzeko eta kudeatzeko baldintzak zehaztea. Zehazki, haien ezaugarriak eta baldintzatzaileak kontuan hartuta, justifikatuta dago:

A.- 1. ataleko aurreikuspenak modu publikoan kudeatu eta gauzatzea. Horretarako, HAPOren aldaketa puntual horretan zehaztuko dira egokitzat jotzen diren eskuhartze irizpideak.

B.- Eragindako lursail eta eraikinen jabeek 2. atalean azaldutako hirigintza-antolamenduko proposamenak modu pribatuan kudeatu eta gauzatzea.

Bosgarrena.- Aurrekarietan azaldutakoa kontuan hartuta, bi aldeak ados jarri eta egokitzat jo dute hitzarmen hau egitea eta sinatzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Hirugarren aurrekariko 2. atalean aipatutako lursaila salerosteko edo transmititzeko aukera

1.- ..... jaunak, ... jaunak eta ..... jaunak hitz ematen dute Zarauzko Udalari saldu eta transmitituko diotela 24.654 m²-ko azaleraren titulartasuna, jabari osoan eta kargarik gabe (hirugarren aurrekariko 2. atalean aipatutakoa).

2.- Zarauzko Udalak hitz ematen du lursail hori jabetzan erosiko eta eskuratuko duela.

3.- Lurraren salerosketa egiteko, hitzarmen honen hurrengo klausuletan ezarritako baldintzak beteko dira.

4.- Erosketa-aukera hau Jabetzaren Erregistroan inskribatu daiteke, aldeetako batek hala eskatuta.

Bigarrena.- Salerosketaren eta/edo transmisioaren prezioa. Ordaintzeko modua. Beste baldintza batzuk

1.- Salerosketaren prezioa 1.600.000 eurokoa da guztira; hor sartzen da lurraren balio ekonomikoa eta jarduera uzteagatiko kalte-ordaina.

2.- Hitzarmen honen aurrekarietan adierazitakoaren arabera, ASTIko kirol-instalazioak handitu beharrak justifikatzen du Zarauzko Udalak lursaila erostea (lehenengo xedapenean aipatutakoa).

Hori dela eta, erosketa hori Udalak aurreko helburua lortzeko sustatu beharreko kudeaketa publikoaren testuinguruan egin dela ulertu behar da.

3.- Prezio hori baldintza hauetan ordainduko da:

A.- Salerosketa-prezioaren % 10 (160.000 €), salerosketa edo transmisio aukera sinatzearekin batera. Salerosketa edo eskualdatze aukeraren primaren ordainketaren baliokidetzat joko da zenbateko horren ordainketa.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

B.- Salerosketa prezioaren gainerakoa (1.440.000 €), salerosketa edo transmisioa formalizatzearekin batera, dagokion eskritura publikoa emanez —edo horretarako egokia den beste edozein dokumentu—, hirugarren klausulan adierazitakoaren arabera.

Zenbateko hori igo egingo da eskritura edo dokumentu hori sinatzen den unean, Euskal Autonomia Erkidegoko KPIaren arabera; igoera hori zehazteko, 2025eko abenduko erreferentzia-data hartuko da kontuan.

4.- Erosleak ordainduko ditu salerosketatik edo transmisiotik eratorritako gastu guztiak (eskritura formalizatzea, erregistroan inskribatzea, zergak...).

5.- Salerosketa edo transmisioa, era berean, hurrengo klausuletan jarritako baldintzen mende geratzen da.

Hirugarrena.- Dokumentu hau sinatzea eta lehenengo xedapenean aipatutako lursailaren jabetzaren transmisioa formalizatzea

1.- HAPOren aldaketa puntuala (bigarren eta laugarren aurrekarietan aipatutakoa) egiteko erabakia hartzen den aldi berean eta/edo ondoren sinatuko da dokumentu hau.

2.- HAPOren aldaketa puntual hori behin betiko onartu eta indarrean jarri ondoren formalizatuko da lehenengo klausulan aipatutako lursailaren jabetzaren transmisioa, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako irizpideekin bat etorriz egokitzat jotzen den moduan.

Salerosketa edo transmisioa gehienez ere bi hilabeteko epean formalizatuko da, HAPOren aldaketa behin betiko onartzen eta indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Hirugarren aurrekariko 2. atalean aipatutako lursailen hirigintza-araubidea. Beste baldintza batzuk.

1.- Lursail horien hirigintza-araubidea eta gauzatzea bat etorriko da laugarren aurrekariko 2. paragrafoan azaldutako aurreikuspenekin.

2.- Aldi berean proiektatu eta gauzatuko dira a) ASTIko kirol-instalazioak handitzeko egin beharreko urbanizazio-zerbitzuak eta b) aurreko ataleko lursailen hirigintza- eta eraikuntza-garapenak eskatzen dituenak, lursail horiekin konektatu arte, hartuneak barrutik egin ahal izateko. Testuinguru horretan:

* Zarauzko Udalak ordainduko ditu zerbitzu horiek aipatutako lurrekin lotu arteko proiekzio- eta gauzatze-gastuak.

  Jabeek ordainduko dituzte aipatutako lurren barruan zerbitzu horiek proiektatzeko eta gauzatzeko gastuak.

* Udalak proiektatu, gauzatu eta ordainduko ditu lursail horiek ixteko obrak eta jarduketak. Dena den, obren proiektua (itxituraren baldintza materialak, altuera, lursaileko sarrera, etab.) bat etorriko da bi aldeek adosten dituzten neurriekin.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

Bosgarrena.- Hitzarmen honen tramitazioa eta onespena. Izaera juridikoa.

1.- Hitzarmen hau indarrean dagoen hirigintza-legerian jasotakoaren arabera tramitatu eta onartuko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian jasotakoak barne.

2.- Legeria horretan ezarritakoaren arabera, hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa du, eta arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenetan zehaztutako irizpideen arabera tramitatu eta onartuko da.

Seigarrena.- Beste aurreikuspen batzuk. Hitzarmenaren baliozkotasuna eta indarraldia.

1.- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldaketa puntuala egiteko, tramitatzeko eta behin betiko onartzeko epea hiru urtekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori luzatu ahal izango da, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik.

2.- Hitzarmen hau eta bertako aurreikuspenak baliozkoak izateko eta indarrean sartzeko baldintza bat bete behar da: HAPOren aldaketa puntuala behin betiko onartzea eta indarrean sartzea.

3.- Sakoneta baserriaren goiko aldean dagoen belardia horren egungo jabeen ardiak larratzeko erabili ahal izango da, baita jabetza Udalari transmititu ondoren ere, hirugarren xedapeneko 2. atalean adierazitakoaren arabera, betiere jarduera hori eta jarduerak dakarren lur-lagapena bateragarria bada arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenekin eta lurren erosketa justifikatzen duten kirol-jarduerekin.

Horretarako, Udalak hiru (3) hilabeteko epea izango du, lurraren jabetzaren transmisioa formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, honako hauek aztertzeko eta jabeei jakinarazteko: ea larratze-jarduera hori legez bideragarria den; bideragarria bada, jarduera hori garatzeko jarritako baldintza materialak eta denborazkoak; jarduera hori behin betiko amaitzeko baldintzak; eta justifikatutzat jotzen den beste edozein gai edo baldintza.

ERANSKINAK

1.- Xabier Txurruka Fernández jaunaren esku-hartzearen egiaztagiria.

2.- ……., …….. eta …….. jaun-andreak 361, 751, 762, 2041, 1304, 2528, 577, 2221, 2261 eta 2262 erregistro-finken titular direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

3.- Planoak
1.- Sakoneta baserriko lurren eta eraikinen kokapena eta mugak.
2.- ASTIko egungo kirol-instalazioei lotutako lursailen kokapena eta mugak, bai eta handitzeko egokiak izan daitezkeen beste batzuena eta Sakonetako bizitegi-lurzatiarena ere.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA



ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA



Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko zortziak eta hamarrean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

ACTA Nº 11 DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 4 DE DICIEMBRE DE 2025

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de la Villa de Zarautz y siendo las diecinueve horas del día 4 de diciembre de 2025, se reúne el Pleno de la Corporación, al objeto de celebrar la sesión extraordinaria previamente convocada para estos día y hora.

Asisten los Sres. Concejales que a continuación se indican:

Presidente D. Xabier Txurruka Fernandez

Concejales
Dª Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena
Dª Irune Urbieta Alberdi
D. Jesus Arana Gomez
D. Iban San Martin Hernandez
Dª Leire Arana Olabarrieta
D. Iker Basurko De Miguel
D. Gervasio Gabirondo Fernandez
Dª Estibaliz Agirre Uranga
Dª Naiara Mendivil Ayerza
Dª Itziar Murua Uria
D. Ion Arozena Eizagirre
Dª Ainara Landa Argote
Dª Ainhize Larramendi Larrarte
D. Mikel Agirre Etxaniz
D. Jesus Goikoetxea Balentziaga
Dª Eider Gurrutxaga Larrañaga
D. Ander Lucas Aranceta
Dª Garazi Olaizola Irureta
Dª Gloria Vazquez Herranz
D. Inaxio Illarramendi Lizarreta

Secretaria Dª Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Interventora Dª Karmele Lizaso Ubera

Abierta la sesión, se inicia el estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día.

ORDEN DEL DIA

1.- PRESUPUESTO GENERAL AÑO 2026. APROBACIÓN INICIAL

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

ZARAUZKO UDALA

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20251204&punto=1

Expediente: 2025D2000001

La Señora Secretaría procede a la lectura del borrador del acuerdo, y a continuación se procede al debate y votación de la propuesta, obteniéndose el siguiente resultado:

Votos afirmativos	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Votos negativos	9	9 EH Bildu
Abstenciones	–	

Por tanto, el Pleno del Ayuntamiento, por la indicada mayoría, adopta el siguiente acuerdo:

Se da cuenta de la propuesta del Proyecto de PRESUPUESTO GENERAL para el ejercicio de 2026, formado por el Presidente de la Corporación e integrado por el presupuesto propio municipal y el de la sociedad municipal ZARAUTZ-LUR SA, así como el Presupuesto Consolidado.

Por todo ello, a la vista de la documentación obrante en el expediente y previo dictamen de la Comisión Informativa de Organización, el Pleno del Ayuntamiento por mayoría, **ACUERDA:**

Primero.- Aprobar inicialmente el PRESUPUESTO GENERAL del Ayuntamiento de Zarautz para el ejercicio de 2026 integrado por el presupuesto propio municipal y el de la sociedad municipal ZARAUTZ-LUR SA y el presupuesto consolidado, de acuerdo a los resúmenes de ingresos y gastos por capítulos que a continuación se relacionan, así como la NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA.

Segundo.- Exponer el expediente a información pública, por plazo de quince días hábiles, al objeto de que las personas interesadas puedan presentar reclamaciones y sugerencias. El trámite de información pública se dará a conocer mediante anuncio en el tablón de edictos, página web del Ayuntamiento y Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Transcurrido dicho plazo sin presentarse reclamaciones, se considerará aprobado definitivamente el presupuesto. En caso contrario, se requerirá acuerdo expreso resolviendo las reclamaciones formuladas.

PRESUPUESTO GENERAL 2026

1) AYUNTAMIENTO

INGRESOS

Capítulo	Denominación	Euro
1	Impuestos directos	10.273.439,00

ESKU6bd5f847-e019-43f1-99a6-04a892d9c5b4

2	Impuestos indirectos	900.000,00
3	Tasas y otros ingresos	5.914.090,00
4	Transferencias corrientes	24.193.534,89
5	Ingresos patrimoniales	303.410,00
6	Enajenación de inversiones reales y otros ingresos derivados de actuaciones urbanísticas	20.000,00
7	Transferencias de capital	707.731,00
8	Activos financieros	2.406.363,64
9	Pasivos financieros	7.751.384,61
	Total	**52.469.953,14**

GASTOS

Capítulo	Denominación	Euro
1	Gastos de personal	15.223.831,64
